


# Enpresen konfiantza nabarmen hobetu da ekainean

Ekainean beste urrats bat eman da ekonomia nagusietako eragileen konfiantza berreskuratzeko bidean. Izan ere, euroaren eremuko PMI konposatuak 47,5eko balioa izan zuen ekainean; kopuru hori eremu ezkorrean dago kokatuta oraindik, baina aurreko hilabetearekin alderatuta hamabost puntuko hobekuntza adierazten du. Hobekuntza horri esker, lau hilabete iraun duen V for-


mako bilakaera osatu da ia erabat. Sektoreka, ezkortasuna nabarmenagoa izan zen zerbitzuetan, baina ekainean zerbitzuen susperraldia manufacturetan izandakoa baino zertxobait biziagoa zen jadanik. Zehazkiago adierazita, zerbitzuen PMI 47,3ra igo zen, eta manufactura enpresena, berriz, 46,9ra. Uztailean 50. maila gainditzeko aukerak badaude.

### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020KO EKAINA  
47,5




### MANUFACTUREN PMI. EUROGUNEA



### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




### PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Hori da, hain zuzen ere, Frantzian jada gertatu dena, ekainean bertako indizea 51,3an kokatu baitzen, eremu baikorrera itzuliz, zerbitzuak (50,3) eta enbrosak (52,1) berriro suspertu zirelako.

Gainontzeko herrialde nagusiek antzeko bilakera izan dute, baina oraindik ez dute gainditu 50 puntuko langa. Zehazkiago adierazita, Alemania (45,8) maila horretatik lau puntura dago, AEBak (46,8) hiru baino gehixeagora eta Erresuma Batuari (47,6) are gutxiago falta zaio. Dena den, herrialde horietako batzuetan sortzen hasi diren berragerraldiek igurikimenak okertzea ekar lezakete.


### PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




### PMI KONPOSATUA. JAPONIA



### PMI KONPOSATUA. AEB



### PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.